

COVID-19aren eragina euskal musikariengan

Gaizka Insunza Aranceta¹, Izaskun Alvarez-Meaza¹, Aitor Basañez Llantada²

¹Enpresen Antolakuntza Saileko irakaslea (Bilboko Ingeniaritza Eskola, UPV/EHU)

¹Enpresen Antolakuntza Saileko irakaslea (Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, UPV/EHU)

Ikerketa honek COVID-19ak euskal musikariengan izan duen eragina du aztergai. Pandemiaren zehar ezarritako itxialdi zein bestelako mugak (ordutegiak, edukiera-mugak) kalte handia eragin diete artean eta kulturaren aritzen diren langileei, haien artean musikariei. 2021eko maiatza eta ekaina bitartean MUSIKARI elkartearen bazkideei bideratutako inkesta batean pandemiak haien jardueran eta sarreretan izan duen eraginaz galdetu diegu. Aldi berean, sektorearen etorkizunari zein norberaren espektatibei lotutako galderak ere jaso dira inkestan. Jasotako emaitzek begi-bistan uzten dute COVID-19ak euskal musikariengan izan duen eragin negatiboa. Eragin negatibo hori era homogeneoan gertatu da musikari mota ezberdinen artean. Etorkizunari lotutako espektatibei dagokienez, ez dira espero bezain negatiboak. Etorkizuneko espektatibek, zein bizitza-gogobetetzearen mailak, lotura handia erakusten dute musikariaren ezaugarri orokorreko.

GAKO-HITZAK: Musikariak · Kultur industriak · COVID-19 · Inkesta.

Impact of COVID-19 on Basque musicians

This research work analyzes the impact of COVID-19 on Basque musicians. Lock-downs and other restrictions during pandemic (schedules, capacity restrains) have hurt workers involved in arts and culture related sectors, musicians among them. During May and July 2021, a survey was conducted among Basque musicians belonging to MUSIKARI association. This survey contained questions regarding the impact of COVID-19 on their music related activities and income. The survey also contained questions regarding future expectations. The results of the survey show that COVID-19 had a very negative impact in both music related activity and income. Restraints on music activity have deeply hurt musicians' income. This impact has been homogeneous among different types of musicians. Nevertheless, we found that expectations regarding future and life satisfaction are strongly conditioned by musicians' general characteristics.

KEY WORDS: Musicians · Culture Industries · COVID-19 · Survey.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.127.2023.2>

Jasotze-data: 2023-02-14 *Onartze-data:* 2023-03-28

Sarrera

Lan honen helburua COVID-19ak euskal musikariengan izan duen eragina aztertzea da. Zehatzagoak izateko, COVID-19ak musika-jardueran, musika-jarduerari lotutako diru-sarreretan, etorkizuneko espektatibetan zein bizitza-gogobetetzearen mailan izan duen eragina da aztergai. Helburu hori lortzeko, lan hau honako atal hauetan egituratzen da. Lehen atalean, sorkuntzari lotutako lanen ezaugarri orokorrak aztertzen dira, baita COVID-19ak horietan izan duen eragina ere. Bertan, literatura akademikoaren aurrekari nagusiak biltzen dira. Ondoren, lanaren bigarren atalean, ikerketaren metodologia azaltzen da eta datu-bilketa zein analisiaren xehetasunak zehazten dira. Hirugarren atalean, ikerketaren emaitza nagusiak azaltzen dira. Laugarren atalean, lanaren ondorio nagusiak azaltzen dira, bai eta haien inguruko eztabaida ere. Azkenik, lana osatzeko orduan erabili diren erreferentzia bibliografikoak zehazten dira.

1. Sorkuntzari lotutako lanen ezaugarriak eta COVID-19aren eragina. Aurrekariak

Nabaria da COVID-19ak gure bizitzan izan duen eragin negatiboa. Ezin ukatu, ezta ere, hainbat sektore ekonomikotan eragindako kalteak. Pandemia-garaian ezarri diren konfinamendu-, mugikortasun- zein ordutegi-mugek, edota esparru itxi zein irekietan ezarri diren edukiera-mugek, kolokan jarri dute aurrez aurre ematen diren zerbitzuen negozio-eredua. Horien artean daude turismoa edota ostalaritza, baina baita artea zein kultura. Adibide ona dira musikariak, haien jardueraren zein sarreraren zati garrantzitsu bat zuzeneko emanaldietan oinarritzen baita.

Literatura akademikoak dioenez, arteari edota sorkuntzari lotutako lanbideak oso bereziak dira. COVID-19aren aurretik gauzatutako ikerketen arabera, eremu artistikoetan aritzen diren langileen batez besteko diru-sarrerak, musikarietak adibidez, oso baxuak izaten dira (Abbing, 2008). Hori dela eta, sorkuntzari lotutako langileek askotan beste lan batzuk ere izaten dituzte (Throsby eta Zednik, 2011; Longden eta Throsby, 2020)¹. Izan ere, artearen edota sorkuntzaren ekosisteman proiektuetan oinarritutako ekoizpen-sistema gailentzen da, non epe laburreko kontratuak diren nagusi. Era horretan arriskua beherantz, langileengana transferitzen da bertikalki desintegratutako antolakuntza-ereduan. Testuinguru horretan, artistek lana mantentzen ikasi dute arriskua kudeatuz eta hainbat lan izanez, aldakorrak izanez, zein lan-aukerak dibertsifikatuz (Menger, 1999, 2006, 2014; McRobbie, 1998; Throsby eta Petetskaya, 2017). Ikerketa askok aipatzen dutenez (Dobson, 2011; Jacukowicz eta Wezyk, 2018; Long, 2015; Parker eta beste, 2021; Alfarone eta Merlone, 2022), musikan diharduten langileek lan-ziurgabetasuna izaten dute, hau da, sektore horretako langileek beren lana galtzeko beldurra dute (De White, 1999).

Soldata baxuei kontrajarriz, eta aipatutako efektu psikologiko negatiboei kontrajarriz, musika-jarduerak beste lanbide batzuekin konparatuz efektu psikologiko positiboak ere baditu (Baumol and Throsby, 2012; Billie eta beste, 2013; Steiner and Schneider, 2013). Eremu artistikoetan, lan-merkatuari dagokionez, oreka bat bilatu

1. Autore askorentzat, artista sortzaileak lan anitzen adibide bitxia dira (Withers, 1985; Rengers eta Madden, 2000; Throsby, 2007; Throsby eta Zednik, 2011).

behar da sormenera bideratutako denboraren (eta hari lotutako onura psikiko baina aldi berean sarrera ekonomiko txikia) eta, hain gustukoa ez den, baina finantzarioki emaitza hobekak ematen dituen beste lanbide batera bideratutako denboraren artean (Throsby, 1994; Baumol eta Throsby, 2012). Agian goian aipatutako arrazoiak direla eta, Potts eta Shehadeh-k diotenez (2014), sorkuntzari lotutako sektoreetako langileen erabakietan arrazoi ez-monetarioek eragin handia dute. Sortzaile baten motibazio nagusia ideiak adieraztea edota ikuspegi artistiko bat lantzea da, eta ez soilik dirua irabaztea.

Bestalde, Strong eta besteek (2020) sektore musikalean aritzen diren langileen osasun mental txarra zein lanordu luzeak aipatzen dituzte, baita langile horiek maiz «erreta» egoten direla ere. Horri lotuta aipagarria da, halaber, droga eta alkoholaren kontsumo-maila ere beste sektoreetan baino handiagoa dela (Ven den Eynde eta beste, 2015; Dobson, 2011).

Pandemian zehar gauzatu diren ikerketen arabera, COVID-19ak finantza-galerak, ezjakintasuna edota etorkizunari lotutako antsietatea ekarri ditu musikariengan. Hau da, jadanik era prekarioan funtzionatzen zuen sektore bati (Comunian and Conon, 2017; Banks, 2017; Butler eta Stoyanova Russell, 2018) kalte handia eragin dio (Brunt eta Nelligan, 2021). Ash Grunwald musikariak dioen bezala, koronabirusa «nire bizitzako erronka handiena da» (Lim, 2020). Egoera horren aurrean, badira alde positiboari begiratzen diotenak ere. Brereton-ek (2020) dioenez, musikariek egoera kontrajarriari aurre egiteko gaitasuna dute, baita egoera berrien aurrean berritzaileak izatekoa ere. Artikulu askotan aipatzen da industriari lotutako agente asko oso baikorrak direla industriaren itzuleraz (Cooper, 2020). Industriak «beti aurkituko du bizirauteko modua» (Gordi, Lim-en, 2020). Live Nacionek egindako inkesta batek dioenez, kontzertuetara joaten den jendeak ere badu zuzeneko musikaren itzuleraren esperantza (Cooper, 2020).

Escalona eta besteek (2021) egindako ikerketa batean Espainiako 81 hiriburutan pandemiak kultura eta sorkuntzaren ekosistemetan izandako eragina aztertzen da. Horretarako kultura eta sorkuntzari lotutako 9 sektoretan izandako enplegu-datuak aztertu dira. Hiri ez-metropolitarrak kaltetuagoak suertatu direla ondorioztatzen da. Ikerketa horrek kultura eta sorkuntzari lotutako enpresa zein langileen zaurgarritasuna eta prekaritatea nabarmentzen ditu. James Rendel-ek (2020) gauzatutako ikerketa batek pandemiak musikarien finantzetan izandako efektu negatiboa aipatzen du. Musikari gehienak zuzeneko bizi dira (Gross eta beste, 2018) eta horien etenaldi edota horiei ezarritako muga edota neurri zorrotzek kalte handia eragin dize. Bestelako ikerketa batzuek aipatzen dute (Alfarone eta Merlone, 2022) pandemian zehar musikariek izan duten lan-ziurtasunik ezaren areagotzea ekarri duela. Ikerketa horrek ondorioztatzen du lan-ziurgabetasunaren eta lanbidea uzteko asmoaren artean erlazio indartsua ere badagoela.

Muga hauen aurrean, eta egoera zail honi aurre egiteko, artista askok beren etxeetatik eskaini dituzte kontzertu intimoak online tresnak erabiliz (Sanchez eta Lock, 2020). Nahiz eta *Portal Show* delako horiek ez diren berriak (Trainer, 2015), pandemian zehar asko areagotu dira. Bestalde, eta online tresnen abantailak direla medio, artisten arteko kolaborazio-dinamikak ere martxan jarri dira pandemian

zehir (Eames, 2020). Edozein kasutan, eta nahiz eta artistek beren esku dauden tresnak erabili, Garland-ek (2020) dioenez, koronabirusaren eragina musika independentearen industrian azkarra eta hondagarria izan da. Teknologia digitalek musikaren industrian izan duten eraginaren eztabaida aspalditik dator; izan ere, Hesmondhalgh eta besteen arabera (2019: 1), «grabaturiko musika izan zen online plataformen bidez eraldatu zen lehen industria nagusia». Zuzeneko kontzertuen eremua musika-industriaren digitalizazioaren aurkako azken bastioia zen (Bennet, 2015), baina pandemia-garaian zuzenekoak ere digitalizatu dira, horri lotutako kontraesanak agerian utziz.

Kontzertuen digitalizazioak, autore batzuen ustez, aurrez aurreko ekitaldien desautentifikazioa dakar (Bennett, 2015; Jones, 2015), non online bitartekaritzak offline interpretazioen onspena deuseztatzen duen (Harper, 2015). Sozializazio falta handia nabaritzen da online eremuetan offline ekitaldien eremuekin alderatuta (Bennett, 2015; Harper, 2015). Pantailek distantzia bat sortzen dute, eta beraz lotura afektiboa murrizten da (Harper, 2015). Autore batzuen ustez, gainera, areto fisikoek musikari eta entzuleak elkartzeko espazioak eskaintzen dituzte tokiko eszenen garapenean lagunduz (Green, 2018; Kiszely, 2013). Edonola ere, maila globaleko eszena birtualak online eremuetan garatzen dira (Knopke, 2014; Bennett eta Peterson, 2004; Snell, 2012). Edozein kasutan ezin dira ukatu online kontzertuen abantaila asko; izan ere, opera edota musika klasikoa pantailaratzeak musika-genero horiek eskuragarriago egiten ditu publikoarentzat, eta ohiko aurrez aurreko ereduari aukera iraunkor bat eskaintzen dio (Burton-Hill, 2015). Beraz, aukera eta mehatxuak aurki daitezke online kontzertuei dagokienez.

Musikarien egoera zailari kontrajarriz, pandemia-garaian musikaren erabilerak gora egin zuen. Cabedo-Mas eta besteek (2021) Espainian egindako inkesta batek dioenez, pandemian zehar jendeak denbora gehiago eskaini zien musika-jardueri (musika entzun, instrumentu bat jo, dantzatu...). Gainera, konfinamendu-garaian musikak estresari aurre egiten lagundu die, erlaxazio-puntu bat emanaz, animoa hobetzen lagunduz eta konpainian sentiaraziz. Inkestaren emaitzek diotenez, konfinamendu-garaian areagotu egin zen banakako zein gizarte-ongizateari begirako musikak duen balioaren errekonozimendua. Hau da, musikaren balioaren pertzepzioa hobetu da.

2. Metodologia

Lanaren helburua gauzatzeko, hiru atal nagusi dituen analisi-eredua planteatzen da (ikusi 1. irudia). Proposatutako ereduak 3 interakzio mota hartzen ditu kontuan.

Lehen motako interakzioak musikarien ezaugarri orokorren eta COVID-19ak haien musika-jarduera zein sarreretan izandako eraginaren arteko harremana du aztergai. Azterketa honen bidez ondorengo galdera erantzun nahi dugu: Ba al dago COVID-19arekiko zaurgarriagoa izan den musikari talderen bat? Adibidez: COVID-19ak eragin handiagoa izan al du emakumeengan gizonezkoengan baino? Interakzio mota honi dagokionez honako ikerketa-galdera planteatu da:


- Musikarien ezaugarri orokorrek (Generoa, Adina, Musika Ikasketak, etab.) baldintzatzen al dute COVID-19ak haien musika-jarduera zein diru-sarreretan izandako eragina?

Bigarren motako interakzioak musikarien ezaugarri orokorren eta etorkizuneko espektatiba zein bizitza-gogobetetzearen mailaren arteko harremana du aztergai. Azterketa honen bidez ondorengo galdera erantzun nahi dugu. Ba al dago etorkizuneko espektatibak baldintzatzen dituen ezaugarririk? Adibidez: Musika-formazioa duten musikariek, musika-formazio formalik ez dutenek baino etorkizuneko espektatiba hobek al dituzte? Interakzio mota honi dagokionez, honako ikerketa-galdera planteatu da:

- Musikarien ezaugarri orokorrek (Generoa, Adina, Musika Ikasketak, etab.) baldintzatzen al dituzte haien etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen maila?

Hirugarren motako interakzioak COVID-19ak musika-jardueran zein sarreretan izandako eragina eta etorkizuneko espektatiben zein bizitza-gogobetetzearen mailaren arteko harremana du aztergai. Hau da, etorkizuneko espektatiba txarragoak al dituzte COVID-19aren eraginez jarduera-galera zein sarrera-beherapen handia jasan duten musikariek? Interakzio mota honi dagokionez honako ikerketa-galdera planteatu da:

- COVID-19ak musikarien musika-jarduera eta diru-sarreretan izan duen eraginak baldintzatzen al ditu haien etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen maila?



1. irudia. Analisi-eredua.

Planteatutako ikerketa-galderei erantzun bat emateko, lehen pauso bezala aldagai horiek jasotzen dituen inkesta diseinatu eta kolektiboa definitu da. Musikari Elkarteko musikariei bideratutako inkesta bat izan da oinarri. Musikari Elkarteak 310 musikaririk osatzen dute, eta 61 erantzun jaso ziren hasiera batean. Erantzun horietatik 55 izan ziren baliagarriak, hau da, populazioaren % 17,74. Inkesta

1. taula. Inkestaren aldagaien deskribapena.

Aldagai identifikatzaileak		COVID 19 AROA		COVID 19 ONDOKO AROA	
Generoa	Gizona, emakumea, ez bitarra	A1	Oso positiboa (1) Positiboa (2) Ez positiboa eta ez negatiboa (3) Negatiboa (4) Oso negatiboa (5)	A3	(1) «oso baxua» (10) «oso altua»
11					
12	Musika-ikasketak	Bai, ez	COVID-19aren eragina musika-jardueran	A4	2021etik aurrera zure ohiko jarduera musikalarekin aurrera jarraitzeko espektatibak
13	Adina	Lehen mailako ikasketak, bigarren mailako ikasketak, unibertsitate-ikasketak	A2	A5	2021etik aurrera edozein jarduera musikalekin aurrera jarraitzeko espektatibak
14	Espertentzia	1954-1974 bitartean jaiotakoak (helduegoak), eta 1975-1995 urteen bitartean jaiotakoak (gazteagoak)		A6	2021etik aurrera zure ohiko jarduera musikalaren eskarieren itzulerari lotutako espektatibak.
15	Beste lan bat	Musikaz gain beste lan bat dut, eta musikarekin erlazionatuta dago (musika-irakaslea, musika-kazetaria, etab.) Musikaz gain beste lan bat dut, eta artearen edota sormenaren beste eremu batzuetan lotuta dago. Musikaz gain beste lan bat dut, eta ez dago musikari ez eia bestelako arte zein sorkuntza-eremuri lotuta. Musikaz gain ez dut beste lanik.		A7	2021etik aurrera zuzeneko emanaldien eskariari lotutako eskariaren itzulerari lotutako espektatibak
16	Musika-estiloa	Klasikoa, garaikidea Rock, pop, folk, blues, jazz, soul... Musika urbanoa (Hip-Hop, Trap...) Musika elektronikoa Beste batzuk		A8	Bitzitza-gogobetzearen maila
17	Forma legala	Soldatapeko langilea Autonomoa Funtzionarioa Bestelako erakunde edo asoziazio baten parte naiz Erretiratu Forma legalik ez			


2021eko maiatza eta ekaina bitartean bideratu zen. Inkestaren diseinua Crosby eta besteek (2020) Australian egindako ikerketa batean oinarritzen da, eta euskal musikaren ekosistemara egokitu da. Inkestaren emaitzek aztertu beharreko datu-sorta definitzen dute, eta datuen aldagaiek har ditzaketen balioak 1. taulan azaltzen dira.

Ereduaren interakzioak aztertzeko lehenik eta behin datu-sortaren aldagaien arteko korrelazio-indizeak kalkulatu dira. Hautatutako aldagaiak nominalak edota ordinalak direnez, Spearmanen korrelazio-indizea kalkulatu da. Ondoren, korrelazio-indize esanguratsuak azaldu dituzten aldagaien arteko harremanean sakontzeko hipotesi-contrasteak planteatu dira. Hipotesi-contrasteak egiteko aldagaien ezaugarri diskretuak direla-eta, Mannyren U proba edota Kruskal Wallisen proba erabili dira. SPSS programa informatikoa erabili da prozedura horiek aurrera eramateko.

3. Emaitzak

3.1. COVID-19aren eragina musika-jardueran eta sarreretan



Atal honetan COVID-19ak euskal musikarien musika-jardueran zein sarreretan izandako eragina aztertzen da. Ondorengo irudian ikus daitekeenez, COVID-19aren eragina handia izan da.



2. irudia. COVID-19aren eragina musika-jardueran zein sarreretan.

2. irudian ikus daitekeen bezala, COVID-19aren eragina musika-jardueran negatiboa edo oso negatiboa izan da inkestan parte hartu duten musikarien % 93rentzat. 2020an, inkestan parte hartu duten musikarien % 85ek inaktibitate-aroak izan zituzten, 2019arekin alderatuz, 25 puntuko igoera izan du. Sarrerei dagokienez, inkestan parte hartu duten musikarien erdiek baino gehiagok beren sarreraren erdia baino gehiago galdu zuten pandemian zehar.



COVID-19aren eragin negatiboa leuntzeko, musikari askok beren sarrerak babesteko neurriak zein sarrera-iturri berriak garatzeko ekimenak abiarazi zituzten. Ondorengo irudiak pandemian zehar musikariek abian jarritako neurri eta ekimen berriak jasotzen ditu.



3. irudia. Sarrerak babesteko estrategiak eta online estrategia berrien erabilera.

3. irudian ikus daitekeen bezala, inkestan parte hartu duten musikarien % 40k baino gehiagok aurrizkiak erabili behar izan zituzten COVID-19ak eragindako galera finantzarioak orekatzeko. Ekimenei dagokienez, parte hartu duten musikarien % 20k elkarlaneko proiektu berriak jarri zituzten martxan.

Ondorengo irudiak COVID-19ari lotutako dirulaguntzen aurrean izandako portaera azaltzen du.



4. irudia. COVID-19 laguntzak.

4. irudian ikus daitekeen bezala, inkestan parte hartu duten musikari gehienek ez zituzten COVID-19ari lotutako dirulaguntzak eskatu (% 76). Laguntza horiek ez eskatu izanaren arrazoiak dagokienez, erdiek, baldintzak betetzen ez zituztela argudiatu dute. Beste % 39k, beste sarrera-iturri bat zutela argudiatu dute, eta, beraz, ez zuten laguntzaren beharrik izan.

Analisi deskriptiboez gain, eta atal honi dagokion ikerketa-galdera erantzuteko, COVID-19aren inpaktuak musikarien ezaugarri orokorrekin duen lotura aztertu da. Zehazki, musikarien ezaugarri orokorrek (Generoa, Adina, Musika Ikasketak, etab.) A1 zein A2 aldagaietan eragin esanguratsurik duten aztertu da. Ondorengo taulak aldagai horien arteko korrelazio-indizeak azaltzen ditu.

2. taula. Aukeratutako aldagaien arteko korrelazio-indizeak. Aldagai identifikatzaileak vs A1, A2.

	I1	I2	I3	I4	I5	I6	I7	I8
A1	-0,096	0,145	-0,159	-0,042	-0,168	0,026	-0,101	0,116
A2	-0,113	0,044	0,028	0,007	-0,035	0,168	0,100	-0,035

Musikarien ezaugarri orokorren eta COVID-19ak haiengan izan duen eraginaren arteko korrelazio-indizeak ez dira oso altuak. Hau da, definitutako aldagai identifikatzaileak (Generoa, Adina, Musika Ikasketak, etab.) ez dute eragin esanguratsurik A1 eta A2 aldagaietan. Beraz, COVID-19aren eragina bai musika-jardueran zein sarreretan era homogeneoan gertatu da musikari mota ezberdinen artean.

3.2. Etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen maila

Atal honetan, 2021. urtetik aurrera musika-jarduera zein sarreraren berreskuratzeaz duten konfiantza-mailaz zein bizitza-gogobetetzearen mailaz galdetu zaie musikariei.

3. taula. Etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen maila.

Aldagaia	Batezbestekoa	Desbiderapena	
A3	2021etik aurrera sarreraren berreskurapenari lotutako espektatibak	5,44	2,3
A4	2021etik aurrera zure ohiko jarduera musikarekin aurrera jarraitzeko espektatibak	6,67	2,29
A5	2021etik aurrera edozein jarduera musikalekin aurrera jarraitzeko espektatibak	7,35	2,47
A6	2021etik aurrera zure ohiko musika-jardueraren eskariaren itzulerari lotutako espektatibak	5,11	2,31
A7	2021etik aurrera zuzeneko kontzertuen eskariaren itzulerari lotutako espektatibak	4,84	2,53
A8	Bizitza-gogobetetzearen maila	5,8	2,27

Inkestan parte hartu duten musikarien artean, merkatuaren garapenari dagokionez, espektatiba negatiboak ageri dira. Haien ohiko sarreraren berreskurapenari, zein haien ohiko musika-jardueraren eskariaren itzulerari dagokienez, batezbestekoek 5a justu gainditzen dute (5,44 eta 5,11ko batezbestekoak lortu dira, hurrenez hurren). Kontzertuen eskariaren itzulerari dagokionez, are emaitza negatiboagoa lortzen da (4,84). Emaitza hobeak lortzen dira beren ohiko jarduerarekin jarraitzeko duten espektatiben inguruan galdetzean (6,67) eta batez ere jarduera musikalen batekin jarraitzeko espektatiben inguruan galdetzean (7,35). Bizitza-gogobetetzearen mailaz galdetzean 5,8ko batezbestekoa lortzen da.

Atal honi dagokion ikerketa-galdera erantzuteko, etorkizuneko espektatibek zein bizitza-gogobetetzearen mailak musikariaren ezaugarri orokorrekin duten harremana aztertu da ondoren. Taula honetan, aipatutako aldagaien arteko korrelazio-indizeak azaltzen dira (4. taula).

4. taula. Aukeratutako aldagaien arteko korrelazio-indizeak. Aldagai identifikatzaileak vs A3-A8.

	I1	I2	I3	I4	I5	I6	I7	I8
A3	-0,212	-0,288*	-0,013	0,145	0,102	-0,095	-0,130	-0,034
A4	-0,136	-0,202	-0,29	0,296*	0,269*	-0,093	-0,241	0,109
A5	-0,299*	0,084	-0,012	0,145	0,202	-0,049	-0,074	0,114
A6	-0,229	-0,394**	-0,158	0,084	0,155	-0,219	-0,123	-0,152
A7	-0,203	-0,350**	-0,172	-0,019	0,125	-0,332*	-0,055	-0,106
A8	-0,306*	-0,039	-0,034	-0,077	-0,083	-0,122	-0,135	-0,045

**0,01 mailako korrelazio esanguratsua

*0,05 mailako korrelazio esanguratsua

4. taulan ikus daitekeen bezala, hautatutako aldagaien artean korrelazio esanguratsuak adierazten dituzten aldagaiak daude. Aldagai horien arteko harremanean sakontzeko, inferentzia-probak egin dira. Ondorengo taulan, egindako inferentzia-proben emaitzak aurkezten dira.

5. taula. Inferentzia-proben emaitza nagusiak.

	Aldagai identifikatzailea	Mendeko aldagaia	Esanguratasun-maila
I1	Generoa	A5	0,028
		A8	0,025
I2	Musika Ikasketak	A3	0,035
		A6	0,04
		A7	0,01
I4	Beste lan bat	A7	0,013
I5	Adina	A4	0,005


5. taulan ikus daitekeen bezala, «Generoa, Musika Ikasketak, Beste lan bat eta Adina» aldagai identifikatzaileak esanguratsuak dira etorkizuneko espektatibak zein bizitza-gogobetetzearen maila azaltzeko orduan. Ondoren, aldagai horien arteko harremanean sakonduko da.

- Generoa (I1)

Honako hipotesiak baieztatu dira «Generoa» aldagaiari dagokionez:

- Hipotesia 1: «2021etik aurrera edozein jarduera musikalekin aurrera jarraitzeko espektatibak» aldagaiaren banaketa ez da berdina genero ezberdineko musikarien artean.
- Hipotesia 2: «Bizitza-gogobetetzearen maila» aldagaiaren banaketa ez da berdina genero ezberdineko musikarien artean.

Ondorengo irudiak A5 eta A8 aldagaien emaitzak jasotzen ditu «Generoa» aldagaiaren menpe.



5. irudia. A5 (ezkerrean) eta A8 (eskuinean) aldagaien kaxa eta biboteen diagramak generoaren arabera.


5. irudian ikusi daitekeen bezala, A5 aldagaiari dagokionez, gizonezkoen kasuan, etorkizunean musika-jardueraren batekin jarraitzeko espektatibak altuagoak dira. Ikusten denez, gizonezkoen kuartil arteko ibiltartea emakumezkoena baino handiagoa da. Medianari dagokionez ere, gizonezkoen kasuan 8 da, emakumezkoen kasuan, aldiz, 6. A8 aldagaiari dagokionez, gizonezkoek emakumezkoek baino bizitza-gogobetetzearen maila altuagoa adierazi dute. Medianak 7 eta 5 izan dira, hurrenez hurren.

- Musika Ikasketak (I2)

Honako hipotesiak baieztatu dira «Musika Ikasketak» aldagaiari dagokionez:

- Hipotesia 3: «2021etik aurrera sarreraren berreskurapenari lotutako espektatibak» aldagaiaren banaketa ez da berdina musika-ikasketa formalak dituzten eta musika-ikasketa formalik ez duten musikarien artean.
- Hipotesia 4: «2021etik aurrera zure ohiko jarduera musikalaren eskariaren itzulerari lotutako espektatibak» aldagaiaren banaketa ez da berdina musika-ikasketa formalak dituzten eta musika-ikasketa formalik ez duten musikarien artean.
- Hipotesia 5: «2021etik aurrera zuzeneko kontzertuen eskariari lotutako eskariaren itzulerari lotutako espektatibak» aldagaiaren banaketa ez da berdina musika-ikasketa formalak dituzten eta musika-ikasketa formalik ez duten musikarien artean.

Ordorengo irudiak A3, A6 eta A7 aldagaien emaitzak jasotzen ditu «Musika Ikasketak» aldagaiaren arabera.



6. irudia. A3 (ezkerrean), A6 (erdian) eta A7 (eskuinean) aldagaien kaxa eta biboteen diagramak Musika Ikasketen arabera.


6. irudian ikus daitekeen bezala, musika-ikasketa formalak dituzten musikariak baikorragoak dira beren sarrerak berreskuratzeari dagokionez, beren ohiko jarduerari lotutako eskariaren itzulerari dagokionez, zein zuzeneko emanaldiei dagokien eskariaren itzulerari dagokionez. Irudian ageri denez, musika-ikasketa formalak dituzten musikarien medianak ikasketa formalik ez dutenenak baino handiagoak dira.

- Beste lan bat (I6)

Honako hipotesia baieztatu da «Beste lan bat» aldagaiari dagokionez:

- Hipotesia 6: «2021etik aurrera zuzeneko kontzertuen eskariari lotutako eskariaren itzulerari lotutako espektatibak» aldagaiaren banaketa ez da berdina beste lanaren arabera.

Ordorengo irudiak A7 aldagaiaren emaitzak jasotzen ditu «Beste lan bat» aldagaiaren arabera.



7. irudia. A7 aldagaiaren kaxa eta biboteen diagrama beste lanaren arabera.


7. irudian ikus daitekeen bezala, musikaz gain beste lanik ez duten musikariak, eta musikari lotutako beste lan bat duten musikariak dira baikorrenak A7ri dagokionez. Haien medianak 5 eta 6 dira hurrenez hurren. Bestalde, sorkuntzari lotutako beste lan bat duten musikariak, eta ez musika eta ez sorkuntzarekin loturarik ez duten lanak dituzten musikariak ezkorragoak dira, haien medianak 4 eta 3,5 izanik hurrenez hurren.

– Adina (15)

Honako hipotesia baieztatu da «Adina» aldagaiari dagokionez:

- Hipotesia 7: «2021etik aurrera ohiko jarduera musikalarakin aurrera jarraitzeko espektatibak» aldagaiaren banaketa ez da berdina adin ezberdineko musikarien artean.

Ondorengo irudiak A4 aldagaiaren emaitzak jasotzen ditu «Adina» aldagaiaren arabera.



8. irudia. A4 aldagaiaren kaxa eta biboteen diagrama adinaren arabera.

8. irudian ikus daitekeen bezala, gazteagoak diren musikariak baikorragoak dira A4 aldagaiari dagokionez (beren ohiko jarduera musikalarakin aurrera jarraitzea). Helduagoak diren musikarien kasuan, iritzi negatiboagoa agertu dute. Mediana ere altuagoa da musikari gazteagoen artean.

3.3. COVID-19aren eragina vs etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen maila

Atal honetan COVID-19aren eraginak (A1 eta A2) etorkizuneko espektatibetan eta bizitza-gogobetetzearen mailan (A3, A4, A5, A6, A7, A8) duen eraginaren azterketari dagozkion emaitza nagusiak aurkeztuko dira. Ondorengo taulak aipatutako aldagaien arteko Spearman-en korrelazio-indizeak adierazten ditu.

6. taula. Aukeratutako aldagaien arteko korrelazio-indizeak. A1, A2 vs A3-A8.

	A3	A4	A5	A6	A7	A8
A1	-0,350**	-0,0145	-0,152	-0,351**	-0,282*	-0,298*
A2	-0,435**	-0,425**	-0,315*	-0,362**	-0,409**	-0,289*

**0,01 mailako korrelazio esanguratsua

*0,05 mailako korrelazio esanguratsua

6. taulan ikus daitekeen bezala, aipatutako aldagaien artean korrelazio-indize esanguratsuak daude. Aldagai hauen arteko erlazioan sakontzeko, eta atal honi dagokion ikerketa-galdera erantzuteko, inferentzia-probak egin dira. Proba horien emaitza nagusiak 7. taulan aurkezten dira.

7. taula. Inferentzia-proben emaitza (COVID-19 eragina vs etorkizuneko espektatibak, bizitza-gogobetetzearen maila).

	Aldagai identifikatzailea	Mendeko aldagaia	Esanguratasun-maila
A1	COVI-19aren eragina musika-jardueran	A3	0,046
A2	COVID-19aren eragina diru-sarreretan	A3	0,027
		A4	0,029
		A7	0,031

7. taulan ikus daitekeen bezala, «COVID-19aren eragina musika-jardueran eta sarreretan» kategorian biltzen diren aldagaiak (A1 eta A2) esanguratsuak dira «etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen maila» osatzen duten aldagai batzuen portaera azaltzeko orduan.


Emitza horien xehetasunak aurkeztuko dira ondoren.

- COVID-19aren eragina musika-jardueran (A1)

Honako hipotesia baieztatu da A1 aldagaiari dagokionez.

- Hipotesia 8: «2021etik aurrera sarreraren berreskurapenari lotutako espektatibak» aldagaiaren (A3) banaketa ez da berdina COVID-19ak musikariaren jardueraren gain izan duen eraginaren arabera.

Ondorengo irudiak A3 aldagaiaren emaitzak jasotzen ditu A1 (COVID-19aren eragina musika-jardueran) aldagaiaren menpe.



9. irudia. A3 aldagaiaren kaxa eta biboteen diagrama A1 (COVID-19aren eragina musika-jardueran) aldagaiaren arabera.


9. irudian ikus daitekeen bezala, COVID-19aren ondorioz musika-jardueran izandako eragina zenbat eta negatiboagoa izan, diru-sarreraren berreskurapenari lotutako espektatiba hainbat eta txikiagoa izango da.

- COVID-19aren eragina sarreretan (A2)

Honako hipotesiak baieztatu dira A2 aldagaiari dagokionez.

- Hipotesia 9: «2021etik aurrera sarreren berreskurapenari lotutako espektatibak» aldagaiaren (A3) banaketa ez da berdina COVID-19ak musikariaren sarreren gain izan duen eraginaren arabera.
- Hipotesia 10: «2021etik aurrera ohiko jarduera musikarekin aurrera jarraitzeko espektatibak» aldagaiaren (A4) banaketa ez da berdina COVID-19ak musikariaren sarreren gain izan duen eraginaren arabera.
- Hipotesia 11: «2021etik aurrera zuzeneko kontzertuen eskariari lotutako eskariaren itzulerari lotutako espektatibak» aldagaiaren (A5) banaketa ez da berdina COVID-19ak musikariaren sarreren gain izan duen eraginaren arabera.

Ondorengo irudiak A3, A4 eta A7 aldagaien emaitzak jasotzen ditu A2 (COVID-19aren eragina sarreretan) aldagaiaren menpe.



10. irudia. A3, A4 eta A7 aldagaien kaxa eta biboteen diagrama A2 (COVID-19aren eragina diru-sarreretan) aldagaiaren arabera.

10. irudian ikus daitekeen bezala, sarreretan % 81 eta % 100eko beherakada izan zuten musikariak dira ezkorrenak beren sarreren itzuleraz (A3), beren ohiko jarduerara itzultzeaz (A4), zein zuzeneko emanaldien eskariaren berreskurapenez (A7). Sarreren beherakada zenbat eta handiagoa izan, orduan eta espektatiba ezkorragoak azaltzen dira.

4. Ondorioak eta eztabaida

Egindako analisiaren emaitzetatik abiatuta hainbat ondorio atera daitezke. Alde batetik, euskal musikariek sorkuntzari lotutako langileei egokitzen zaizkien ezaugarriak betetzen dituzte. Euskal musikariak hainbat lan izatearen adibide ona dira (Withers, 1985; Rengers eta Madden, 2000; Throsby, 2007; Throsby eta Zednik, 2011). Aipagarria da, orobat, musikatik eratorritako diru-sarreren ehunekoak musikara bideratzen duten lan-denboraren ehunekoa baino baxuagoak direla.

Musikari gehienek etenaldiak izaten zituzten beren jarduera musikalean COVID-19a baino lehen. Inaktibitate-aro horiek hazi/areagotu egin ziren 2020an COVID-19a dela eta. Horren ondorioz, eta literatura akademikoarekin bat eginez, euskal musikariek beren jarduera baldintza oso prekarioetan garatzen dutela esan daiteke (Comunian eta Conor, 2017; Banks, 2017; Butler eta Stoyanova Russell,

2018; McRobbie, 1998). Beste autore batzuek aipatzen duten bezala, musikarien ekonomia kaltetuta suertatu da pandemiaren ondorioz (Brunt eta Nelligan, 2021), jadanik prekarizatutako sektore baten egoera agerian utziz (Comunian eta Conor, 2017).

Euskal musikariek moldakorrak eta berritzaileak direla erakutsi dute, pandemian zehar online tresnak erabiliz estrategia berriak garatu baitituzte (elkarlaneko proiektu berriak garatu, sarrera-iturri berriak bilatu, etab.). Hori bat dator beste autore batzuek munduko beste lurralde batzuetan ikusi dituzten joerekin (Menger, 1999, 2006, 2014; McRobbie, 1998; Throsby eta Petetskaya, 2017). Literatura akademikoarekin bat eginez, euskal musikarien sarrera-iturri nagusia zuzeneko emanaldiak dira (Gross eta beste, 2018). Emanaldi horien murrizketak musikarien finantzetan eragin oso negatiboa izan du. Nahiz eta musikari askok aurrizkiak erabili dituzten COVID-19aren inpaktu negatiboa leuntzeko, bitxia da gehienek ez dituztela COVID-19ari lotutako dirulaguntzak eskatu. Laguntza horiek eskatu ez dituztenen artean, erdiek, laguntza horiek jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztela argudiatu dute, eta beste % 40 batek beste sarrera-iturri bat dutela. Emaizok ikusita, euskal musikarien motibazio nagusia ez dela ekonomikoa ondoriozta daiteke. Izan ere, nahiz eta musika-jarduerari lotutako eskariaren itzuleraren inguruan espektatiba txarrak izan, jarduera musikalen batekin jarraitzeko asmo irmoa erakutsi dute inkestan parte hartu duten musikariek. Ondorio hau bat dator gaiaren inguruko literatura akademikoarekin (Potts eta Shehadeh, 2014; Throsby, 1994).

Nahiz eta COVID-19aren eragina latza izan den bai musika-jardueran zein diru-sarreretan, egin diren hipotesi-kontrasteen emaitzek zera adierazten dute: jarduerari lotutako murriztapena eta sarreren beherakada era homogeenan gertatu dira musikarien artean. Hau da, genero, adin edota forma juridikoek ez dute eragin esanguratsurik COVID-19aren eraginari dagokionez.

Etorkizuneko espektatibak eta bizitza-gogobetetzearen mailaren analisiaren emaitzak, aldiz, musikarien ezaugarri orokorrekiko (generoa, adina, musika-formazioa) eta COVID-19ak haien musika-jardueran zein sarreretan izan duen eraginaren mendekoak direla ondorioztatu da. Gizonezko musikariek etorkizuneko espektatiba hobek dituzte emakumeekin alderatuta. Musika-ikasketa formalak dituzten musikariek, ikasketa formalik ez dutenek baino etorkizuneko espektatiba hobek dituzte. Musikari gazteenek musikari helduenek baino espektatiba hobek dituzte. Beste lanik ez duten musikariek beste lan bat dutenek baino etorkizuneko espektatiba hobek dituzte.

Bestalde, COVID-19aren ondorioz beren jardueran zein diru-sarreretan eragin oso negatiboa jasan duten musikariek etorkizuneko espektatiba txarragoak erakusten dituzte. Aipagarria da, baita ere, beren ohiko jarduera musikalarekin jarraitzeko aurkezten dituzten espektatibak ere ez direla oso altuak. Emaizta hauek literatura akademikoari dagokion beste ondorio bat baieztatzen dute: etorkizunari lotutako ezjakintasanak antsietatea eragiten diela musikariei, eta antsietate horrek lan-ziurtasunik eza eragiten du (Dobson, 2011; Jacukowicz eta Wezyk, 2018; Long, 2015; Parker eta beste, 2021; Alfarone eta Merlone, 2022).

Azkenik, eta jasotako datuen azterketatik abiatuta, generoak musikaren sektorean betetzen duen paperean sakontzea beharrezkoa iruditzen zaigu. Alde batetik, ikerketa honetan jasotako laginean gizonezkoen gehiengo nabaria ageri da, sektorean gizonezkoak gailentzen diren seinale. Nahiz eta ikerketa honen helburuez haratago joan, genero-aldagaia beste ezaugarri jakin batzuekin oso korrelazionatuta dagoela ikusi dugu, adibidez «musika-estiloa» edota «bestelako ikasketak». Eraitza partzial hauek generoak sorkuntzari lotutako sektoreetan duen rolari lotutako analisi zehatzago bat eskatzen dute. Izan ere, generoak euskal musikaren ekosisteman jokatzeko duen rolaaren analisi sakonago bat egitea da egileok aurreikusten dugun etorkizuneko lan-ildo nagusia. Analisi hau tresna erabilgarria izan daiteke sorkuntza sektorean beharrezkoak diren berdintasun zein aniztasun-irizpideak babesteko.

Lan honen mugei dagokienez, ikerketa egiteko erabili den laginaren tamaina txikia da. Hori dela eta, emaitzak zein ondorioak zehatziaz interpretatu behar dira. Bestalde, euskal musikaren ekosistema berezia da. Nahiz eta lan honek bestelako eremu batzuetan egindako ikerketen ondorio askorekin bat egiten duen, emaitzak euskal musikaren testuinguruan ulertzea gomendatzen da.

5. Bilbiografia

- Abbing, Hans (2008): *Why are artists poor? The exceptional economy of the arts*, Amsterdam University Press.
- Alfarone, Irene eta Merlone, Ugo (2022): «The show must go on: Pandemic consequences on musicians' job insecurity perception», *Psychology of Music*, 50(6), 1-25. [DOI: 10.1177/03057356221081553]
- Banks, Mark (2017): *Creative Justice*, Pickering & Chatto, Londres.
- Baumol, William eta Throsby, David (2012): «Psychic payoffs, overpriced assets, and underpaid superstars», *Kyklos*, 65(3), 313-326.
- Bennett, Rebecca Jane (2015): «Live concerts and fan identity in the age of the Internet», in Angela Cresswell Jones eta Rebecca Jane Bennett (argtz.), *The Digital Evolution of Live Music*, Chandos Publishing, Oxford, 3-15.
- Bennett, Andy eta Peterson, Richard (2004): «Introduction to music scenes», in Andy Bennett eta Richard Peterson (argtz.), *Music Scenes: Local, Translocal, and Virtual*, Vanderbilt University Press, Nashville, TN, 1-15.
- Billie, Trine eta beste (2013): «Happiness in the arts-international evidence on artists' job satisfaction», *Economic letters*, 121(1), 15-18.
- Brereton, Greta (2020): *Is coronavirus pushing the music industry into a more innovative space?*, <<https://beat.com.au/is-coronavirus-pushing-the-music-industry-into-a-more-innovative-space/>> (Kontsulta: 2020-06-09).
- Brunt, Shelley eta Nelligan, Kat (2021): «The Australian music industry's mental health crisis: media narratives during the coronavirus pandemic», *Media International Australia*, 2020, 178(I), 42-46.
- Burton-Hill, Clemency (2015): *Is watching opera in the cinema just as good?*, <<https://www.bbc.com/culture/article/20150114-opera-in-the-cinema-blasphemy>> (Kontsulta: 2020-07-31).
- Butler, Nick eta Stoyanova Russell, Dimitrinka (2018): «No funny business: precarious work and emotional labour in stand-up comedy», *Human Relations*, 71(12), 1.666-1.686.

- Cabedo-Mas, Alberto; Arriaga-Sanz, Cristina eta Moliner-Miravet, Lidon (2021): «Uses and Perceptions of Music in Times of COVID-19: A Spanish Population Survey», *Frontiers in Psychology*, 11. [<https://doi.org/10.3389/fpsyg.2020.606180>]
- Comunian, Roberta eta Conor, Bridget (2017): «Making Cultural Work Visible in Cultural Policy», in Victoria Durrer, Tobi Miller eta Dave O'Brien (argtz.), *The Routledge Handbook of Global Cultural Policy*, Routledge, Londres, 265-280
- Cooper, Nathanael (2020): *Australian artists first as music industry prepares to go live again*, <<https://www.smh.com.au/culture/music/australian-artists-first-as-music-industry-prepares-to-go-live-again-20200506-p54qc.html>> (Kontsulta: 2020-05-10).
- Crosby, Paul eta McKenzie, Jordi (2020): *Survey evidence on the impact of COVID-19 on Australian musicians*, Macquarie Business School.
- De Witte, Hans (1999): «Job insecurity and psychological well-being: Review of the literature and exploration of some unresolved issues», *European Journal of Work and Organizational Psychology*, 8(2), 155-177.
- Dobson, Melissa C. (2011): «Insecurity, professional sociability, and alcohol: Young freelance musicians' perspectives on work and life in the music profession», *Economic letters*, 121(1), 15-18.
- Eames, Tom (2020): *Gary Barlow is teaming up with rival boy band singers for daily 'Crooner Sessions' duets online*, <<https://www.smoothradio.com/artists/take-that/gary-barlow-crooner-sessions-duets-coronavirus>> (Kontsulta: 2020-03-20).
- Escalona-Orcao, Ana eta beste (2021): «Cultural and Creative Ecosystems in Medium-Sized Cities: Evolution in Times of Economic Crisis and Pandemic», *Sustainability*, 13(1), 49. [<https://dx.doi.org/10.3390/su13010049>]
- Garland, Emma (2020): *The impact of the coronavirus outbreak on the independent music industry has been swift and devastating*, <https://www.vice.com/en_uk/article/akw8xk/how-to-support-independent-music-coronavirus> (Kontsulta: 2020-03-30).
- Green, Katie Victoria (2018): «Trying to have fun in 'No Fun City': Legal and illegal strategies for creating punk spaces in Vancouver, British Columbia», *Punk and Post Punk*, 7(1), 75-92.
- Gross, Sally Ann eta beste (2018): *Well-Being and Mental Health in the Gig Economy: Policy Perspectives on Precarity*, University of Westminster Press, Londres.
- Harper, Tael (2015): «Aura, iteration, and action: Digital technology and the jouissance of live music», in Angela Cresswell Jones eta Rebecca Jane Bennett (argtz.), *The Digital Evolution of Live Music*, Chandos Publishing, Oxford, 17-27
- Hesmondhalgh, David; Jones, Ellis eta Rauh, Andreas (2019): «SoundCloud and Bandcamp as alternative music platforms», *Social Media & Society*, 5(4), 1-13.
- Jacukowicz, Aleksandra eta Wezyk, Agata (2018): «Development and validation of the Psychosocial Risks Questionnaire for Musicians (PRQM)», *Psychology of Music*, 46(2), 252-265. [<https://doi.org/10.1177/0305735617706540>]
- Jones, Angela Cresswell (2015): «What's my scene: Festival fandom and the application of the Big Day Out stage», in Angela Cresswell Jones eta Rebecca Jane Bennett (argtz.), *The Digital Evolution of Live Music*, Chandos Publishing, Oxford, 29-40.
- Kiszely, Philip (2013): «From place to space to scene: The Roxy room and the emergence of Manchester's alter-native pop culture identity», *Punk and Post Punk*, 2(1), 27-42.
- Knopke, Ekkehard (2014): «Headbanging in Nairobi: The emergence of the Kenyan metal scene and its transformation of the metal code», *Metal Music Studies* 1(1), 105-125.
- Lim, Eddy (2020): *'This is the biggest challenge of my life': Australian artists speak on the coronavirus' devastating financial impact*, <https://www.nme.com/en_au

- features/australian-artists-speak-on-the-coronavirus-devastating-financial-impact-2629330> (Kontsulta: 2020-06-01).
- Long, Brian (2015): «Forms of precarity and the orchestral musician», *Asia Pacific Journal of Arts and Cultural Management*, 12(1), 3-13.
- Longden, Thomas eta Throsby, David (2020): «Non-Pecuniary Rewards, Multiple Job-holding and the Labour Supply of Creative Workers: The Case of Book authors», *Economic Society of Australia*. [DOI 10.1111/1475-4932.12577]
- McRobbie, Angela (1998): *British Fashion Design: Rag Trade or Image Industry?*, Routledge, Londres.
- Menger, Pierre-Michel (1999): «Artistic labour markets and careers», *Annual Review of Sociology*, 25, 541-74.
- Menger, Pierre-Michel (2006): «Artistic Labour Markets: Contingent Work, Excess Supply and Occupational Risk Management», in Victor Ginsburgh eta David Throsby (argtz.), *Handbook of the Economics of Art and Culture 1*, Elsevier, Amsterdam, 765-811.
- Menger, Pierre-Michel (2014): *The Economics of Creativity*, Harvard University Press, Cambridge.
- Parker, Stacey; Jimmieson, Nerina eta Amiot, Catherine (2021): «Persisting with a music career despite the insecurity: When social and motivational resources really matter», *Psychology of Music*, 49, 138-156.
- Potts, Jason eta Shehadeh, Tarecq (2014): «Compensating Differentials in Creative Industries and Occupations: Some Evidence from HILDA», in Greg Hearn (argtz.), *Creative Work beyond the Creative Industries: Innovation, Employment and Education*, Edward Elgar, Cheltenham, 47-60.
- Rendel, James (2020): «Staying in, rocking out: Online live music portal shows during the coronavirus pandemic», *Convergence. The International Journal of Research into New Media Technologies*, 1-20.
- Rengers, Merijn eta Madden, Christopher (2000): «Living art: artists between making art and making a living», *Australian Bulletin of Labour*, 26, 325-354.
- Sanchez, Erica eta Lock, Helen (2020): *Watch! John Legend joins artists rallying against coronavirus through 'together at home'*, <<http://www.globalcitizen.org/en/content/john-legend-together-at-home-against-coronavirus/>> (Kontsulta: 2020-03-20).
- Snell, Dave (2012): *The everyday Bogans: Identity and community amongst heavy metal fans*, University of Waikato, Zeelanda Berria
- Steiner, Lasse eta Schneider, Lucian (2013): «The happy artist: An empirical application of the work-preference model», *Journal of Cultural Economics*, 37(2), 225-246.
- Strong, Catherine; Cannizzo, Fabian eta Rogers, Ian (2020): *The Victorian Music Business Career Life Cycle. Melbourne, VIC, Australia: RMIT University for the Victorian Music Development Office*, <<https://www.vmdo.com.au/career-paths>> (Kontsulta: 2020-04-10).
- Throsby, David eta Petetskaya, Katya (2017): *Making Art Work: An Economic Study of Professional Artists in Australia*. Strawberry Hills, NSW, Australia Council for the Arts, Australia.
- Throsby, David eta Zednik, Anita (2011): «Multiple job-holding and artistic careers: Some empirical evidence», *Cultural Trends*, 20(1), 9-24.
- Throsby, David (1994): «A Work-preference Model of Artist Behaviour», in Alan Peacock eta Ilde Rizzo (argtz.), *Cultural Economics and Cultural Policies*, Springer, Dordrecht, 69-80.
- Throsby, David (2007): «Preferred work patterns of creative artists», *Journal of Economics and Finance*, 31, 395-402

- Trainer, A. (2015): «Live from the ether: YouTube and live music video culture», in Angela Cresswell Jones eta Rebecca Jane Bennet (argtz.), *The Digital Evolution of Live Music*, Chandos Publishing, Oxford, 71-84.
- Van den Eynde, Julie; Fisher, Adrian eta Sonn, Christopher (2015): *Working in the Australian entertainment industry: phase 2: Executive summary*, Victoria University, Melbourne.
- Withers, Glenn (1985): «Artists' subsidy of the arts», *Australian Economic Papers*, 24, 290-5.